



Euskarak badu *euskara bada*

EUSKARAREN HILABETEA
• 2013 •

Bigarren Hezkuntzako ikasleen lanak

MAKETAZIOA: Ana Grijalba.

**LEGE GORDAILUA:
SS-230-94**





AGURRA

Euskarak badu euskara bada

Kaixo, gazteok

Hementxe gaude berriro ere, Euskararen Hilabetea dela, IRUNERO bereziko aldirakaria dela, guztiok elkarrekin.

Gauza askok elkartzen gaituzte, baina hilabete honetan, euskararen inguruan elkartzen gara edo bestela esanda, euskarak biltzen gaitu.

Munduan 6.000 hizkuntza inguru dago. Hizkuntza pila alajaina! Eta euskara bada horietako bat. Bada eta euskarak badu. Badu bere lekua jolasetan, dantzan, kantuan, ikuskizunetan eta badu lekua, munduan, guztion artean mundu anitzago eta aberatsago bat egiten lagunduz.

Eta horiek zuen lanetan islatzen dira.

Urtero bezala, zuek sortutako istorio, olerki, hainbat gauza bikain jaso ditugu eta niretzat pozgarria da zuengandik jasotakoa Irunero aldirakari berezi honen bidez zuon guztion esku jartzea eta bihotzez espero dut disfrutatzea.

Lerro hauetatik zorionak eta eskerrak eman nahi dizkizuet egindako lanarengatik. Eta animatu nahi zaituztet orain arte bezala jarraitzera, euskara erabiltzen, eta zuen lanen bitartez hizkuntza zabaltzen, euskaraz mundu anitzago eta aberatsago bat egiteko. Beraz, eutsi goiari eta jarraitu horrela.

Datorren urtean ere hementxe elkartuko garelakoan har ezazue nire agurrik beroena.

Irunen, 2013ko martxoan

Fernando SAN MARTÍN GUBÍA
EUSKARA ORDEZKARIA

Aurkibidea

El Pilar DBH 1 - Saskibaloia pista
El Pilar DBH 2. - Ezkurtxo

7
11

Hirubide DBH 1 - Esnezko goxokiak
Hirubide DBH 2 - Denbora pasak

5
9

San Vicente DBH 1 - Ostatu batean
San Vicente DBH 1 - Gabonak izei txikian

8
12

Toki Alai DBH 1 - Euskarazko esaldirik politenak
Toki Alai DBH 2 - Luz de putas

6
10


ESNEZKO GOXOKIAK

O s a g a i a k :

- ✓ 75g. azukre
- ✓ 125g. eztia
- ✓ 75g. gurin
- ✓ 15cl. esne

P r e s t a t z e k o m o d u a :

1. Hasteko, ontzi batean esnea eta gurina berotu irakin arte.
2. Gero, erantsi azukrea eta eztia. 15 minututan su epelean eduki koilaraz mugituz.
3. Jarraian, zilarrezko papera olioaz igurtzi eta molde batean jarri; eta ondoren, orean moldean zabaldu.
4. Hozten utzi eta gero, gurinez igurtzitako labain batez zatitu.
5. Azkenik, zati bakoitza papertxo batean bildu.



EUSKARAZKO ESALDIRIK POLITENAK!!

Zu zara nire poz guztien iturria.

Zu zara nire begietako distira. Zu zara nire poz guztien iturria.

Amets egiteko
garaia heldu da.

Pingintxak eta
pingintxoak zara.

Itarginako eta
buetta maite zibua
Gozaren arrakasta
izatera, egin
bezagun
ezberria.

Bizitza zure pibotan, ez bati baino bai
bedariko
Aspektian esperio zaitudaiako ez nago
sekulan bekarik.

Tu zure eskuak den ezar, atzer
Orain gaurko ibaripenak dirako eta
oraineko biturko dabilketako bitur

Ez galdetu inoiz
zer galdu genuen
negar egin
genuenean, malko
haiei esker orain
itsasoa gara.

SASKIBALOI PISTA

Eskulan oso dibertigarria egingo dugu. Saskibaloia pista! Zure lagunekin momentu oso dibertigarriak pasatuko dituzu eta Lebron James baino hobea izateko entrenatu zaitezke. Hasiko gara. Animoll!

MATERIALAK:

- Txapakumea
- Akwarelak
- Kartulina
- Yogurt potea
- Haria
- Margoak
- Errotulagailuak
- Zilarrezko papera
- Pintzelak
- Guraizeak
- Arkatza eta borragoma
- Erregela
- Arroza



NOLA EGIN:

◇ Lehenengo, txapakumea margotu eta lehortu ondoren errotulagailu beltzarekin pista marraztu.



- ◇ Jarraian, kartulinarekin tutu bat egin eta beste bat txikiagoa erresistentzia hobea izateko. Bi tutuak itsatsi, handia bertikalean eta txikia horizontalean.
- ◇ Ondoren, txapakume zati txiki bat moztu, margotu eta bertan lauki bat marraztu.
- ◇ Jogurt potea akwarelekin marraztu eta hari zatiak inguruan itsatsi.
- ◇ Hori egin eta gero, txapakume txikian itsatsi.
- ◇ Txapakume txikia kartulinetara itsatsi.
- ◇ Hori bukatzean, kartulinarekin tutu bat egin kanasta mantentzeko eta gero kanasta guztia itsatsi, tubuaren barruan arroza sartuz.
- ◇ Bukatzeko, pista zulo txiki bat egin. Hari zati bat zulo txikian lotu eta pilotarekin lotu. Pilota zilarrezko papera erabiliz egin behar duzu.

OHARRA

Nahi baduzue kanasta tente egoteko bi hari zatitxo tutuetara lotu eta pistara ere itsatsi.






Bi lagun ostatu batera sartu ziren



eta zerbitzariarengana joan ziren.



-Jarri bi koka kola eta bi botila ur.
-Zer, laurek gidatu behar al duzue?



LUZ DE PUTAS



Musika-talde bidasotar bat da. Gaur egun bederatzita lehen taldekideekin osatzen dute, horien artean Peio (tronpeta), Oskar (saxofoia), Diego (tronboia), Mikel (ahotsa).



Ska musika, alaia eta bizia, rock, reggae eta ragga ukituekin osatzen dituzte haien abestiak. 2012an atera zuten Pink Light District izeneko lehen diskoak arrakasta izan du. Hondarribiako Psilocybe Enean aurkeztu zuten disko honek badu berezitasun bat: kaxaren barruan, haien diskoaz gain, beste CD txuri bat dakar beste bati oparitzeko eta kopia egiteko. Hori izan da entzuleei gehien gustatu zaiena, originaltasunarengatik. Abesti guztiak euskaraz daude: "Herriko plaza", "Zure abestia", "Zureak egin du", "Mahala bidean", "Gau eroa" eta askoz abesti gehiago...!

ZERGATIK "LUZ DE PUTAS"?

Taldekide batzuk OCT taldean zeudenean, entseztzen zuten lokalean argihori itsusi batzuk zituzten. Behin beirarekin lan egiten zuten lagun bat bertara joan eta argi gorri batzuk jarri zizkien. Modu honetan, taldeak argi horiek jartzea nahi zuenean beti esaten zuten "pon la luz de putas", aire hori ematen ziolako lokalari. Egun horietatik dator, beraz, izen hau.

Argazkiak webgune hauetatik atera dira:
<http://www.myspace.com/luzdeputas>
<http://luzdeputas.bandcamp.com/album>

EZKURTXO

Bazen behin ezkurrez beteriko hiri txiki bat. Hiria zuhaitz berezi baten barruan zegoen, haritz batean hain zuzen. Honen enborraren barruan bizi zen alai eta pakean gure Ezkurtxo. Ezkurtxo ezkur txiki eta alai bat zen. Bere aita-amarekin eta bere 25 anai-arrebekin bizi zen. Guztietatik bera txikiena zen, bere amak esaten zuen zerbait handia egiteko jaioa zela. Baina Ezkurtxok ez zuen hori pentsatzen.

Egun beltz batean haize bortitza zebilen. Ezkur guztiak zuhaitzaren enborrean zeuden babesean. Nahiz eta haritza hain handia eta zaharra izan mugitzen hasi zen. Ezkur guztiak korrika sustraietara jaitsi ziren, babes bila. Zuhaitza alde batera joaten hasi zen. Aitak esan zuen:

-Eutsi gogor ezkurtxo!

Hau entzutean ezkur guztiak gogor eutsi zieten susutraiari, baiian alferrik. Zuhaitza PUM! Gogor batekin erori egin zen lurrera ezkurra bere sustraietara eutsita zituelarik. Korrika denak sustraietatik salto egin zuten eta elkartu ziren. Ezkurtxo beldurrez dardara zegoen. Bere amari eutsi zion, negarrez. Pixkana-pixkana familia guztia, 28-ak bildu ziren. Semeak zenbatu eta ilaran jarri ziren.

Ibiltzen hasi ziren babesleku baten bila. Baina bat-batean... Hiru txerriekin topo egin zuten.. Txerriak beraien atzetik zihoa-zen.

Ezkurra jan nahi zituzten! Korrika hasi ziren alde batetik bestera txerriak galdu nahian. Momentu batean Ezkurtxo gelditu egin zen eta bere inguruan begiratzen hasi zen.

Non zeuden aita eta ama? Eta bere anai-arreba? Bakarrik zegoen! Galduta zegoen! Ez zekien non zegoen ezta nora joan behar zen ere. Geldirik geratu zen eta pentsatzen hasi zen. Ezin zuen negar egin, horrek ez zuen ezer konponduko. Lehendabizi egin behar zuena babesleku bat aurkitzea zen gaua bertan pasatzeko eta hurrengo egunean aita eta amaren bila aterako zen.

Hau guztia pentsatzen ari zenean zulo batera erori zen. Oihuka hasi zen baina beheraino erori zen. Nora eramango ote zuen zulo horrek? Momentu batean zerbait

ten gainean erori zen. Begiak ireki eta bere aurrean urtxintxa bat aurkitu zuen. Oihuka hasi zen eta urtxintxa ere bai! Bat-batean biak isildu eta elkarrri begiratu zioten.

-Kaixo!- esan zuen Ezkurtxok. Euskeraz hitz egiten duzu?

-Bai! Ez nekien zuk ere hitz egiten zenue-nik!-erantzun zuen urtxintxak.

Hizketan hasi ziren biak. Ezkurtxok bere istorioa kontatu zion. Urtxintxak Urtxi izena zuena, lagunduko ziola erabaki zuen. Han geratuko ziren gaua pasatzen eta bihar-munean biak abiatuko ziren Ezkurtxoren familiaren bila. Bata bestearen babosean jarri eta lo hartu zuten.

Goizean esnatu eta martxan jarri ziren.



Egun guztia oinez ibili ziren eta Ezkurtxo oso nekaturatua zegoen, ezin zuen gehiago.

Hau ikusita Urtxi, Ezkurtxo hartu eta bere gainean jarri zuen. Zuhaitzera igo zen eta korrika hasi zen zuhaitzetatik. Hegan egiten ari zirela pentsatzen zuen gure Ezkurtxok.

Iluntzen ari zuen argi bat ikusi zutenean. Ez zegoen oso urruti. Azkarrago korri egiten hasi zen Urtxi. Ilundu baino lehen iritsi behar ziren argi hartara. Azkenik iritsi ziren argira. Etxe txiki bat zen eta argia zegoen barruan. Atea jo zuten eta patata bat ateratu zen.

Bi begi haundi eta beltz zituen. Ez zuen belarririk ezta sudurrik ere baina bai irrifarre eder bat.

-Kaixo!- esan zuen Ezkurtxok.

-Kaixo! Nortzuk zarete?-galdetu zuen patatak - pasa barrura mesedez hotzak egongo zarete kanpoan!

Barrura pasa ziren. Etxea txikia baina oso polita zen. Eseri eta bere istorioa kontatu

zioten Patata Jaunari.

Dena entzutean bere etxean geratzen utzi zien. Honek esan zien bertatik gertu zegoela ezkur hiri txiki bat. Bere familia bertan egon zitekeen. Bertara eramango zituen hurrengo goizean. Gaua bertan pasa zuten abesten eta hitz egiten lo geratu ziren arte. Hurrengo goizean esnatu eta martxan jarri ziren berriro ere.

Biak Urtxiaren gainean igo eta korrika hasi zen.

Bi ordu geroago hirira iritsi ziren. Bi ordu horietan Patata Jaunak Ezkurtxori berak ikusitako hainbat lekuri buruz hitz egin zion. Patata Jauna mundo leku askotan egona zen. Ezkurtxok liluratutik begiratzen zuen Patata Jauna. Beste hizkuntza asko ere hitz egiten zituen:

-Nahiz eta hainbeste hizkuntza asko jakin eta hainbeste leku ikusi esan behar dizut ez dudala inoiz euskera bezalako beste hizkuntzarik entzun. Altxor bat da Ezkurtxo, gure altxorra da eta zaindu behar dugu. Ez ahaztu inoiz esan dizudana. Altxor bat da, ez utzi galtzen!

Ezkur txikia hitz hauek entzutean harrituta gelditu zen baina seguru zegoen bere bizitzan ez zituela inoiz ahaztuko.

Hau pentsatzen ari zenean hirira iritsi ziren. Hiri txikia zen ibai baten ondoan zegoena eta sarreran... Ezkurtxoren familia zegoen!!!!!!

Bertara korrika joan zen, irribarre haundi batekin. Bere aita eta ama besarkatu zituen. Hirurak negarrez hasi ziren eta bere anaia-arreba ere bai.

Denak galdera berdina egiten zituzten. Non egon zara?, Nola aurkitu gaituzu? Nortzuk dira haiek?

Ezkurtxok pixkanaka eta bere lagunez lagunduta istorio guztia kontatu zion. Bukatzean denak barrezka eta irribarrez aritu ziren.

Denbora pasa eta gero denak Patata Jauna bizi zen lekura bizitzera joatea erabaki zuten. Ezkurra, Urtxi eta Patata Jauna elkarrerkin abiatu ziren bere etxe berrira. Denak elkarrerkin bizitzan jarraitzen dute bakan eta alai. Ezkurtxok Patata Jaunari kasu egin zion eta euskera babesten eta euskaraz mintzatzen jarraitzen du. Altxor bat delako, gure altxorra eta zaindu behar dugulako!!!

GABONAK IZEI TXIKIAN



IZARRA: Gaur izei txikia bilatu behar dut. Gabon Gauda da!!

(Txori batek izei txikiari hitz egiten dio)

TXORIA1: Izei, gaur Gabon Gauda da, festa bat egingo dugu!

IZEIA: Nire barruan dauden animalia guztiei deitu behar diegu.

KONTALARIA: Txoriak eta izeiak hitz egiten duten bitartean ...

KATUA: Mmmm ... gaur txori asko egongo dira izei txikian. Gabon Gaueko afari goxoa!!

KONTALARIA: Txoriak bitartean patakak jaten ari ziren

IZEIA: Zer ondo pasatzen ari garen gure lagun guztiekin, ezta txori?

TXORIA 1: Bai, lagunak, familiak ...

TXORIA 2: Txoriak entzun mesedez!

Egon isilik! Gauza bat esan behar dizuet.

KONTALARIA: Txoriak eta izeia isildu egin ziren, eta orduan txoriak esan

zuen:

TXORIA 2: Berri txarrak dauzkat, katua berriz etorriko da!

TXORIA 1: Nor da katua?

IZEIA: Katu hau beti etortzen da goseak dagoenean txoriak jatera.

KONTALARIA: Denak isilik geratu ziren

KATUA: Miauuu ... Zenbat txori jango dut gaur? Miauuu.

IZARRA: Zer gertatzen da izeia? Olentzerori deituko diot!!

KONTALARIA: Orduan Olentzero etorri zen ...

OLENTZERO: Katu! Ospa hemendik! Joan zaitez edo ez duzu oparirik izango.

KATUA: Bale, orduan nire etxera noa

DENAK: OSO ONDO!!!!

KONTALARIA: Izarra izeiaren goiko aldean jarri zen eta Gabonak pozik pasatu zituzten



- Euskara Arloa >
- Euskara ikasi >
- Euskaraz bizi >
- Euskara aberastu >
- Euskara Arloko argitalpenak >
- Euskara Iruñen >
- Euskararen aurkibidea >
- Loturak >

FOTOTEKA
Irudiak

DOKUMENTU KUDEATZAILA

Erabiltzailea:

Pasahitza:

Bilatzaina:

Jarraitu bitartez

Euskaraz bizi

 > LOIDI BEVA 2010	 > GURASOAK ETA SEME-ALABAK
 > EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA	 > ABIZENAK EUSKARAZ
 > MERKATARIENTZAT MATERIALA	 > NI ERE BERTSOLARI
 > UDAL EUSKALTEGIAREN WEB ORRIA	 > ITZULPEN ZERBITZUA

Gaurkofasuna

- Mintzaleguna abian da!
- PUNALDIA Hendaan
- Hendaan: euskarazko eliztzen agenda
- Gasteizko bideo lehiaketa
- Euskara, gure lehen platera / Emañ zure kolorea euskarari

> bertsi guztiak

Euskararen agenda

Urria 2010						
A	A	A	O	L	F	
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

> Teaterarekin erlazaturak

 **Iruñeko leku izenak**

 **Ba al zenekien? Non aparta zen Anjel'eko Ama Dirijikaren imajak**

Iruñeko euskara

 **RSS - Gaurkotasuna**

Diru-laguntzak

	<ul style="list-style-type: none">Euskara-ikastekoGurasoentzako laguntzakEuskara sustabeko laguntzakIkasleentzako laguntzak	<h4>Zer behar duzu?</h4> <ul style="list-style-type: none">Euskara ikasiEuskara erabili:<ul style="list-style-type: none">FamilianIkasleentzakoAisialanIrakurleentzakoLan munduanErretiro eta klubetanEuskara aberastuEuskararen aurkibidea
---	--	---

Euskara Iruñen

<h4>Datuak</h4> <ul style="list-style-type: none">Datu soziolinguistikoakHiritarren eskubideak, Udal ordenantzaEuskararen aurkibideaIruñeko leku izenak	<h4>Baliabideak</h4> <ul style="list-style-type: none">BaliabideakSoftware-a euskarazAgiri ereduakProduktuen katalogoak
--	--